

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa**

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo kirol-elkarteei diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoaren aldaketaren behin betiko onespena.

Bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeian egindako ezohiko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo kirol-elkarteei diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoaren aldaketaren lehen onespena.

Espedientea jendaurrean jarri da abuztuaren 2ko 146/2017 Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako eta iragarki-taulan jarritako iragarkiaren bitartez eta hogeita hamar egun balioduneko epean; alabaina, ez da erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu. Hortaz, orain arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat hartu dela joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua erekin bat etorritik. Horrenbestez, oinarrien aldaketaren testu osoa argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bigarren oinarriaren (bigarren paragrafoa), Bosgarren oinarria, seigarren oinarriaren (lehenengo paragrafoa eta 10. puntuak), zazpigarren oinarria, bederatzigarren oinarriaren (lehenengo paragrafoa), hamargarren oinarriaren (hirugarren paragrafoa), hamabigarren oinarriaren (lehenengo paragrafoa), hamaseigarren oinarriaren (10. eta 11. puntuak) eta hamazazpigarren oinarria aldaketa argitaratzeko oinarrien testu finkatura gehituz egin da eragile juridikoek errazago erabil dezaten.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo kirol-elkarteei diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoak; horien bidez, atletismo, trinketa eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan kirol-programak edo ekintzak egin nahi dira.

1. Helburua

Oinarri hauen xedea da: atletismo, trinketa eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan urteko kirol-programak edo ekintzak egiteko diru-laguntzen deialdi publikoa egitea (norgehiagoka araubidearen arabera), Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietan egoitza duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei.

2. Diru-laguntzaren baldintzak eta helburua

Diru-laguntzen xedea urteko kirol egitaraua eta jarduerak egitea izango da, atletismoa, trinketea eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan, Amankomunazgoaren kirol instalazioen barruan, eta lotuta egongo dira erakundearen eskumeneko xedeak osatzen edo ordezkatzan dituen interes publiko edo sozialeko xede bat betetzeari.

Diruz lagun daitezkeen egitarauak edo jarduerak deialdiaren urte naturalean garatu beharko dira, eta hurrengo modalitate hauetakoren baten arabera zehaztu:

— Kirol erakundeen urteko egitaraua atletismoko espezialitatean.

Atletismo arloan, urteko programak Amankomunazgoko herrietako kirolari kopurua kirolari federatuen %30a baino handiagoa den kasuetan bakarrik finantzatuko dira.

— Pistako txirrindularitzaren sustatze eta prestakuntza praktikoko egitaraua.

— Trinketaren sustatze eta prestakuntza praktikoko egitaraua.

Ez dira diruz lagunduko:

Eskola kirolaren arloko edo eskoletako edo IGEen barne jardunbideko jarduerak.

— Amankomunazgoak edo beste administrazio publiko batzuek berariaz diruz laguntzen dituzten ekitaldi edo txapelketen antolaketa.

**3. Entitate onuradunak**

Honako deialdi honek eskaintako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute era honetako irabazi asmorik gabeko kirol erakundeek:

- a) Eusko Jaurilaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda dutenek.
- b) Euren sozietatearen egoitza Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako batean dutenek.
- c) Amankomunazgoko kirol instalazioetan diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzeko proiektuak dituztenek.
- d) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzen dituztenek,
- e) eta zazpigarren puntuan finkatuta dauden dokumentuak aurkezten dituztenek.

4. Aurrekontuko kreditua

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako zuzkidura ekonomikoa dagokion urteko deialdian zehaztuko da eta adierazten diren aurrekontuko aplikazioen kargura ordainduko da.

5. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten dieten eta deialdiaren urte naturalean egingako gastu arruntak. Diruz lagun daitezkeen gastuak hartzearen kostua inolaz ere ezin da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindutako gastua joko da egindako gastutzat.

2. Hain zuzen ere, honakoak hartuko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat:

- Entitateko kirolarentzat inbentariora biltzekoa ez den kirol-materiala eta kirol jantzien erosketa. Fakturak produktuen deskribapena eta unitate kopurua zehaztu behar dute.
- Izen-emate eta federazio-lizentzien gaineko gastuak, kirolarien zerrenda erantsita (zerrendarekin batera).
- Arbitraje-gastuak.
- Garraio publikoaren gastuak.
- Kirol txapelketetan ostatu gastuak.
- Txapelen eta Garaikurren gastuak.
- Bulego-material suntsikorra.
- Publizitatea.
- Seguruak

* Ostatu-gastuen fakturak edo garraio-txartelek zerbitzua erabili duten kirolarien izena adierazi beharko dute, eta, hori posible ez balitz, hauek erantsi beharko dira: zerbitzua erabili dute kirolarien ardurapeko adierazpena, zein kirol-txapelketatan parte hartu duten, eta emaitzak.

Baldintza hau ez betetzeak faktura ez onartzea suposatuko du.

3. Honakoak ez dira diruz lagunduko:

- Bazkari eta edarien gastuak.
- Ibilgailu partikularrean egindako joan-etorrien gastuak.
- Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairu gastuak.
- Sariak, dirutan emandako sariak eta opariak eta entitateek antolatutako frogetako parte hartzaileei zuzendutako kirol-materiala eta kirol jantzien gastuak.
- Elkartearentzako egindako lanagatik zenbait laguni ordaindutako dohain eta kalte-ordainak edo boluntariorik gabeko gastuak.
- Elkarteko langileen soldatak eta gizarte-segurantzako gastuak.



- Lokalen alokairuaren eta garbitasunaren gastuak.
- Elektrizitatea, ura eta telefono finkoa edo mugikorra ordaintzeko gastuak.
- Prestakuntza eta birziklatze teknikoko gastuak.
- Ondasun inbentariagarriak eskuratzea.

4. Zergei loturiko diru-zenbatekoak laguntzeko modukotzat joko dira, eskatzaileak berak benetan ordaintzen dituenen. Ez da laguntzarik emango zeharkako zergen ondoriozko gastuetarako, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.

Pertsona onuradunak bete beharreko gastua kontratatzeko arauak

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 2007ko urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legean kontratu txikiarentzat finkatutako zenbatekoak baino handiagoa denean, onuradunak hornitzaileen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, lanerako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehenagotik, betiere baldin eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan egin, eman edo hornitzen dituzten erakunde nahikorik bada, edo baldin eta gastua diru-laguntza baino lehenagotik egin gabekoa bada.

Diru-laguntzaren justifikazioan edo, egokia baldin bada, diru-laguntzaren eskaeran helarazi beharko diren aurkeztutako eskaintzen artean hautatzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da hautatzea proposamen ekonomiko onuragarriena hautatzen ez denean.

6. Eskabideak aurkezteko era eta epea

Diru-laguntzen eskabideak eredu ofizialean (I. Eranskina) aurkeztuko dira, Amankomunazgoaren Erregistro Nagusian (Astola etxea 26, Abadiño). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua arautzen duen moduren batean ere aurkez daitezke eskabideak.

Eskabideak eta agiri osagarriak aurkezteko epea 15 astegunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu dezake.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak.

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta erakundearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko da eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde edo elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
2. Eusko Jaurlaritzaren elkartearen erregistro ofizialean izena emanda duela azaltzen duen ziurtagiria, jatorrizkoa edo kopia konpultsatua.
3. Elkartearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia konpultsatua.
4. Erakundearen estatutuen arabera erakundearen legezko ordezkaria denaren nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua.
5. Behar bezala eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordezkarien izendapenaren akordioaren ziurtagiria.
6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.
7. Erakundearen legezko ordezkariaren ardurapeko aitorpena, erakundea diru-laguntzak eskuratzetik ezgaituta ez dagoela esanez. (II Eranskina)
8. Zinpeko aitorpena, diru-laguntzarako aurkeztu den proiekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo jasotako diru-laguntza edo laguntzak azalduz. (III Eranskina)
9. Kirol jardueraren edo urteko programaren diru-sarrera eta gastu aurrekontu zehaztua. (IV Eranskina)
10. Diru-laguntza eskatzeko azaldu den jarduera zehatza edo urteko jarduera-programa, kostu ekonomikoa zehaztuz.



Programak zehatz identifikatu eta azalduta egon beharko dira, honakoak azalduz: helburuak, jarduerak egiteko leku eta egunak, parte hartuko duten kirolari eta talde kopuruak (gutxi gorabehera), kategoriak eta sexuak, lehiaketak, kirola sustatzeko jarduerak eta erabiliko diren instalazioak. Halaber, jarduera horien aurrekontu-banaketa ere egin beharko da.

Atletismo modalitatean, ezinbestekoa izango da Atletismoko Federazioaren ziurtagiria aurkeztea, klubean federatutako kirolarien kopurua eta Amankomunazgoa osatzen duten udalerrietako kirolarien kopurua jasota.

Nahitaez, zehatz agerrarazi beharko da programa edo jarduerak hasteko edo amaitzeko aurreikusi den eguna.

11. Diru-laguntza emateko alegatutako merezimenduei buruzko egiaztagiriak, eta bereziki talde-zerrenda eta kirolari federatuen izen-zerrenda eta NAN.

12. Elkartearen titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta. (V Eranskina)

7. Akatsak zuzentzea

Eskabideak hutsuneak baditu edo oinarri arautzaile hauetan ageri diren baldintzak bete ez baditu, organo eskudunak interesatuari eskatuko dio akatsak zuzen ditzan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Horrez gain, jakinarazi egingo zaio, zuzenketarik egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko duela Administrazioak, horretarako ebazpena bidali ondoren; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluari eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluari jarraiki.

8. Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eskabideak konparatuz egingo baita. Nolanahi ere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako publikitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, bereizkeria eza, eraginkortasun eta eragimen printzipioak bermatuko dira.

9. Eskaerak baloratzeko irizpideak

Jarraian ezarri diren balorazio-irizpideak oinarri hartuta esleituiko dira diru-laguntzak, emandako haztapenaren arabera:

a) Urteko programa atletismo espezialitatean

1. Proiektuak bere osotasunean duen kalitate teknikoaren arabera:

Ume eta gazteen artean atletismoaren sustapena, ekitaldi hasieran lizentzia aktiboa duten entrenatzaileen formakuntza teknikoa, programatutako ekintzak, Durangaldean antolatutako beste kirol ekintzen antolaketa (atletismo-pistatik kanpora), etab. baloratuko dira: Gehienez 30 puntu.

2. Deialdia egiten den urtean klubak kirol txapelketa federatuetan parte-hartzeagatik (talde bezala); gehienez 15 puntu.

— Bizkaiko txapelketetan parte-hartzeagatik: Txapelketa bakoitzeko 0,5 puntu: gehienez 5 puntu.

— Euskal Autonomi Elkarteko txapelketetan: Txapelketa bakoitzeko 0,75 puntu: gehienez 5 puntu.

— Espainiar estatu mailako txapelketetan: Txapelketa bakoitzeko puntu 1: gehienez 5 puntu.



3. Elkartean dauden Amankomunazgoko herrietako kirolari kopuruagatik: gehienez 10 puntu.

Kopurua	Puntuak
10 kirolaritik 20 kirolarira	3
21 kirolaritik 30 kirolarira	5
31 kirolaritik 40 kirolarira	7
41 kirolari baino gehiago	10

4. Elkartearen Bizkaiko kirolari federatuen kopuruagatik (Amankomunazgoko herrietako kirolariak kenduta): gehienez 5 puntu.

Kopurua	Puntuak
5 kirolaritik 10 kirolarira	2
11 kirolaritik 15 kirolarira	3
16 kirolaritik 20 kirolarira	4
21 kirolari baino gehiago	5

5. Landako atletismo pistan antolatutako txapelketa federatuengatik (ez herrikoiak): gehienez 10 puntu.

Txapelketa bakoitzeko	Puntuak
Probintzia	2
Txapelketa bakoitzeko 0,5 puntu: gehienez 2 puntu	
Autonomikoak	3
Txapelketa bakoitzeko puntu 1: gehienez 3 puntu	
Estatu mailakoak	5
Txapelketa bakoitzeko 2,5 puntu: gehienez 5 puntu	

6. Parte hartzaileen kopuru osoko emakumeen ehunekoaren arabera: gehienez 10 puntu

Portzentaiak	Puntuak
%20-%29	2
%30-%39	4
%40-%49	8
%50tik gora	10

7. Desgaitasun fisiko/psikikoak edota sentsorialak dituzten pertsonen gizarteratzea bultzatzen duten jarduerak egitearen arabera (jarduera irekiak edo programa zehatzak): gehienez 5 puntu.

- Pertsona horiek integratzeko egoerak ekartzen dituzten jarduerak egitearen arabera: 2 puntu.
- Desgaitasuna duten pertsonen elkarrekin lankidetzan edo zuzenean komunitate horrentzako programa zehatzak egitearen arabera: 3 puntu.



8. Diruz lagun daitekeen aurrekontua: Kirol erakunde bakoitzak aurkeztutako gastuen aurrekontutik diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoak bakarrik gehituko dira, baturaren emaitzari dagokion puntuazioa esleitzuz, honako eskala honen arabera:

Diruz lagun daitekeen aurrekontua	10 puntu
5.000 eurora bitartean	2
5.001 eta 15000 euro bitartean	5
15.001 eta 25.000 euro bitartean	8
25.001 eurotik gora	10

9. Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuan ez dauden kanpoko finantziazio-iturriengatik; esaterako, babesletzak, lankidetzak edo bestelako baliabideak (beste administrazio batzuen diru-laguntzak izan ezik): 5 puntura bitarte.

Portzentaia	Putuak
%10era arte	2
%11tik %20ra bitarte	3
%21etik %30era bitarte	4
%31tik Aurrera	5

Diru-laguntza lortu ahal izateko, entitate eskatzaileak gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu balorazio globalean.

b) *Pistako txirrindularitza sustatzeko eta prestakuntza praktikoa emateko programak, Berrizko belodromoan eta Abadiñoko Tornosolo trinketean.*

1. Programako parte hartzaileen kopuruaren arabera: gehienez 35 puntu.

Zenbakia	Puntuak
10 parte hartzaile arte	10
11 eta 20 parte hartzaile artean	15
21 eta 30 parte hartzaile artean	20
31 eta 40 parte hartzaile artean	25
41 eta 50 parte hartzaile artean	30
51 parte hartzailetik gora	35

2. Programaren egun edo jardunaldi kopuruaren arabera: gehienez 35 puntu.

Urteko jardunaldiak	Puntuak
Urtean 10 jardunaldi arte	10
Urtean 11 eta 20 jardunaldi artean	15
Urtean 21 eta 30 jardunaldi artean	20
Urtean 31 eta 40 jardunaldi artean	25
Urtean 41 eta 50 jardunaldi artean	30
Urtean 51 jardunalditik gora	35



3. Parte hartzaileen kopuru osoko emakumeen ehunekoaren arabera: gehienez 20 puntu.

Portzentaia	Puntuak
%5 arte	4
%5-%10	8
%11-%15	12
%16-%20	16
%21-%25	20

4. Desgaitasuna duten pertsonak integratzeko egoerak ekartzen dituzten jarduerak proposatzearen arabera: 10 puntu.

Desgaitasuna duten pertsonen irekitako programa: 10

Diru-laguntza lortu ahal izateko, entitate eskatzaileak gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu balorazio globalean.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa

Kirol erakunde bakoitzaren diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko prozedura honako prozedura honen arabera mugatuko da:

- Diru-laguntza eskaerak kirol modalitate bakoitzerako finkatutako balorazio irizpide objektiboen arabera baloratuko dira, eta modalitate bakoitzean diru-laguntza eskaerei esleitutako puntu guztiak batuko dira.
- Egitarau funtzional bakoitzeko (atletismoa, trinketea edo belodromoa) kredituaren zenbatekoa kirol espezialitatean elkartzen diren eskaerei esleitutako puntu guztien artean banatuko da, puntu bakoitzaren balio ekonomikoa (puntu-tipoa) eskuratze-ko helburuarekin
- Kirol erakunde bakoitzaren diru-laguntzaren zenbatekoa puntu kopuru osoaren eta puntu bakoitzari (puntu-tipoa) esleitutako balio ekonomikoaren arteko biderketaren emaitza izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, baliabide kualitatibo eta kuantitatiboak aintzat hartuta, ekintza egin ahal izateko beharrezkotzat onartutakoaren arabera diruz lagun daitekeen aurrekontuaren %85 izango da gehienez.

Edozein modutan ere, entitate edo elkarte bakoitzak jaso dezakeen gehieneko diru-kopurua dagokion urteko deialdian zehaztuko da.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziazioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

11. Diru-laguntzaren emakida izapidetu, proposatu eta ebazteko eskumena duten organoak

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Presidentea edo berak eskuordetutako organoa izango da diru-laguntzak emateko organo eskuduna, Kultura, Hezkuntza, Kirol eta Euskara Arloko Informazio Batzordeak proposatuta.

12. Ebazpena jakinarazteko epea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 43. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.



Erakunde onuradunak zeintzuk diren eta eman diren laguntzak zenbatekoak diren adieraziko da ebazpenean, eta beren-beregi alpatuko da gainerako eskabideak ez direla onartu.

Sei hilabeteko epea egongo da, gehienez, prozeduraren ebazpena ebatzi eta jakinarazteko, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Gehienezko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu behar izango dute.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango Presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten denetik zenbatzen; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko auzitegian, bi hilabeteko epean. Hori gorabehera, interesdunak egoki irizten duen beste edozein errekurtso ere ezarri ahal izango du.

13. Emandako diru-laguntza ordaintzeko modua.

Ordainketa aurreratuaren bidez ordainduko da diru-laguntzaren %70, diru-laguntza justifikatu aurretik eta bermerik aurkeztu behar izan gabe, jarduerak gizarte-interesekoak direla kontuan hartuta. Hala ere, baldintzak bete ezean, erantzukizunak eskatu eta dirua itzultzeko agindu ahal izango da.

Gainerako zenbatekoa (%30), diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak justifikatzeko epea bukatuta duen diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu. Era berean, ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunari lehenagoko diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatuta, itzuli ez baldin badu.

14. Inguruabarrak aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketa nabarmenik egonez gero, ebazpena ere aldatu egin ahal izango da.

15. Bestelako diru-laguntzekin bateragarriak diren.

Mankomunitateak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina inola ere ezin izango da gehiegizko finantziatorik egon.

16. Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen arabera diru-laguntza eskuratuko duten erakundeek diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte eta, batez ere, 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak. Bertan, besteak beste, honakoak daude azalduta:

1. Diru-laguntza jaso duen jarduera egitea, proiektuan azaldutakoari jarraituz.
2. Jarduera egin dela egiaztatu eta laguntza emateko zehaztu diren betekizun eta baldintzak betetzea.
3. Finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak onartzea, eta eskatuko zaizkion datuak ematea.
4. Proiektua egitean sor litezkeen aldaketen berri ematea, eta behar bezala justifikatu.
5. Beste administrazio edo publiko zein pribatu batzuek helburu bererako bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman duten jakinaraztea.
6. Diru-laguntza eta bere aplikazioa behar bezala justifikatzea, gehienez bi hilabeteko epean, diruz lagundu den proiektu edo jarduera amaitzeko aurreikusi den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.



7. Eska litezkeen kontabilitate-agiriak izatea, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak behar bezala egin ahal izan daitezen, horrelakorik egotekotan.

8. Jasotako fondoak aplikatzeko egiaztagiria gordetzea, elektronika agiriak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin daitezkeelako horien gainean.

9. Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako kasuetan, bertan adierazitakoa betez.

10. Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren logotipoa txertatzea publizitatean eta kirol-arropan.

11. Publizitatea eta ekintzak EAEko hizkuntza bietan egin beharko dira; idatziz zein ahoz, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.

17. Diru-laguntzaren justifikatzeko epe eta modua

— Justifikatzeko epea

Bi hilabeteko epea egongo da diru-laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako proiektu edo jarduera amaitu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

— Justifikatzeko sistema

Diruz lagundu den proiektu edo jarduera egin dela egiaztatzeko, legezko ordezkariak sinatutako egiaztapen-kontua aurkeztu beharko da. Honako agiri hauek izango ditu:

2.1. Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla frogatzen duen jarduketa-memoria. Memoria horretan, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazi beharko dira. Memoria euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da.

Atletismo modalitatean kirolarien zerrenda, txapelketa data eta emaitzak akta ofizial edo antzeko dokumentu bitartez frogatu beharko dira.

Trinkete eta Belodromoko txirrindularitza modalitateei dagokionez, diru-laguntza eskatu duen entitatearen lege ordezkariaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, parte hartzaileen izenen zerrendarekin, eta bertan kasuan kasuko NAN zenbakiak zehaztu beharko dira.

2.2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa. Memoria horretan ondoko hauek jaso beharko dira:

a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua; zerrenda horretan ondokoak identifikatu beharko dira: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, eta jaulkipen-data eta ordainketa-data.

b) Jatorrizko fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio duten edo administrazio-eraginkortasuna duten frogagiri baliokideak, zerrendan agertzen direnak eta ordainketa frogatzeko dokumentazioa.

c) Aurreko zerrendan jasotako gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, hala badagokio.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatza, eskatutako finantzaketa propioa barne; hor, diru-sarrera horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera adierazi beharko dira.

e) Hala badagokio eta aplikatu ez den soberakinik balego, diru-itzulketaren ordainketa gutuna eta soberakinetatik eratorritako interesak.

Txosten ekonomikoa, paperean eta euskarri informatikoan, eredu ofizialean aurkeztuko beharko da.

Pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 justifikatu beharko du, ez emandako kopurua bakarrik, Amankomunazgoak ordaintzekoak diren gastuak zehaztuz.



2.3. Diru-laguntzaren xedea den inbertsio, jarduera edo programaren finantzaketaren izaera publikoa egiaztatzeko dokumentazioa.

— Egin diren publizitate-materialen kopiak (kartelak, programak, etab.).

— *Fakturen betekizunak*

Fakturaturako jarduera helburu duten enpresek egin beharko dituzten fakturak, diru-laguntzaren onuraduna den erakundearen izenean, eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua azaldu beharko da fakturan.

Beraz, ez da onartuko diru-laguntza eskatu duen erakundeak edo partikularrek egingako faktura orokorrik.

Aurkeztutako fakturek deialdiaren urteko data eduki beharko dute, eta legez eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte. Honakoak adierazi beharko dira bertan:

— Faktura-zenbakia.

— Eman den eguna.

— Izen-abizenak, sozietatearen izena eta enpresaren IFZ.

— Enpresaren helbidea.

— Elkartearen izena eta IFZ.

— Egindakoaren deskribapena. Albaran edo oharrik aipatzen bada, fakturarekin batera aurkeztu beharko dira.

— Zenbateko garbia eta aplikatutako BEZa adieraztea.

— Fakturaren guztizko zenbatekoa.

Gastuak egiaztatzea faktura elektronikoen bitartez ere egin ahal izango da, betiere baldin eta zerga arloan onartuak izateko exijitutako eskakizunak betetzen badituzte.

— *Ordainketa egiaztatzen duten agiriak*

1. Transferentzia, helbideratze, txeke edo agiri bidezko ordainketak: azalpena, jaso duen hirugarrena eta kargatutako zenbatekoa jasotzen dituen transferentzien eta konturako karguen zerrenda.

Ordainketa transferentzia edo banku-helbideratze bidez egingo da oro har. Fakturarekin batera, bankuko ordainagiria (liburuxka, bankuko kontu-laburpena, zordunketa edo banku-mugimendua) aurkeztu beharko da.

Ordainketaren bat agiri edo txeke bidez egiten bada, horren fotokopia bat eta laburpen edo bankuko kontu-laburpena edo banku-mugimendua aurkeztu beharko dira, hartzaileak jaso duela egiaztatzeko.

Ordainketa erakundearen titulartasuneko kontu korrante batetik egin beharra dago beti.

2. Ordainketak eskudirutan: ordainduta dagoela adierazten duen zigilua fakturan, erosketa egin zaion edo zerbitzua eman duen hirugarrenaren sinadurarekin eta zigilua-rekin.

3. Kasu berezietan, nahikoa izango da tiketak edo ordainagiriak (metroarena, autobusarena, eta abar) aurkeztea. Erakundearen adierazpena gehitu beharko da, gastu horiek diru-laguntzaren kargura egin zirela erakusteko, jatorria eta zein kontzepturenak diren zehaztuz.

— *Gastuaren egiaztatzeak baloratzea eta zigilua jartzea*

Aurkeztutako fakturak edo jatorrizko agiriak zigilu-marka batez markatu beharko dira. Zigilu-marka horretan justifikatutakoa zein diru-laguntzari dagokion adierazi beharko da eta horrekin batera, egiaztatutako kopurua diru-laguntza osoarena edo zati batena den aipatu beharko da.

**18. Frogagiririk ez aurkeztea edo nahikoa ez justifikatzea**

Diru-laguntza justifikatzeko beharra ez bada ezarri denaren arabera bete edo nahikoa justifikatu ez bada, diru-laguntza itzuli beharko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako baldintzetan.

19. Oinarrien interpretazioa

Presidenteak edo berak eskuordetutako organoa izango da oinarri hauek aplikatzetik sor litezkeen arazoak interpretatu eta ebazteko organo eskuduna, eta horretarako beharrezko ebazpen osagarriak emango dituena.

20. Aplikatu beharreko arautegia

Araudi honen xede diren laguntzek diru-laguntza izaera dute, eta honako testu hauek arautuko dituzte: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, 38/2003 Legearen Diru-laguntzen Araudi Orokorrak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutakoa, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak eta oinarri arautzaile hauek.

Abadiñon, 2017ko irailaren 13an.—Presidenteak, Aitor López Vázquez



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

I ERANSKINA

Durango Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeek edo kirol elkarteek, atletismo, trinketa edo belodromoko txirrindularitza modalitateetan, kirol programak edo ekintzak egiteko diru-laguntzaren eskaera.

Urtea: **1. Eskatzailearen datuak**Elkartearen izena: IFZ/AIZ edo IFK: **2. Legezko ordezkariaren datuak**Izena: 1. Abizena: 2. Abizena: IFZ/AIZ: Eskatzailearekin harremana: **3. Jakinarazpenerako helbidea**Helbidea: Posta kodigoa: Udalerrria: Posta elektronikoa: Harremanetan jartzeko pertsona: Telefono: **4. Eskatzen den diru-laguntza**Modalitatea: ☐ Atletismo ☐ Trinketa ☐ Belodromoko txirrindularitza☐ Programa: Eskatutako zenbatekoa: **5. Aurkeztu beharreko agiriak (egokia dena x-ekin markatu)**☐ 1. Erakunde edo elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.☐ 2. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan Inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria: jatorrizkoa edo kopia konpultsatua.☐ 3. Elkartearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia konpultsatua.☐ 4. Erakundearen legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua.☐ 5. Behar bezala eta dagokion erregistro ofizialean Inskribatutako organo eta ordezkariaren izendapenaren akordioaren ziurtagiria.



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

- ☐ 6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.
- ☐ 7. Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, erakundea diru-laguntzak eskuratzetik ezigaituta ez dagoela esanez. (II. Eranskina)
- ☐ 8. Erantzukizunpeko aitortpena, diru-laguntzara aurkeztu den prolekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuek eskatutakoa edo halengandik jasotakoa adieraziz. (III. Eranskina)
- ☐ 9. Jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua. (IV. Eranskina)
- ☐ 10. Diru-laguntza eskatzeko azaldu den jarduera zehatza edo jarduera-programa.
- ☐ 11. Alegatutako merezimenduen buruzko eglaztagiriak.
- ☐ 12. Elkartearen titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta. (V. Eranskina)

Abadiñon, 20 ko _____ aren (e)an

Eskatzailearen sinadura/ordezkoa



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

II. ERANSKINA

**Diru-laguntzak lortzeko bateraezintasun arrazoirik ez dudala adierazten duen ardura-
peko adierazpena**

Nik, jaunak/andreak,
NAN zenbakidunak (edo, hala izanez gero,(r)en izenean eta ordezkari gisa
jardunez, IFK zenbakiduna) eta jakinarazpenen ondorioetarako egoltza
..... helbidean dudanak, hauxe

ADIERAZI DUT

Ez nik, ez ordezkatzeko Entitateak ez dugula inolako bateraezintasun kausarik, ez
debekurik, diru-laguntzak jasotzeko onuradun izaera lortzeko, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen
Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan ezarrita dagoen bezala.

Eta hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ardura-
peko adierazpen hau egin dut.

.....(r)(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Sin.:



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

III. ERANSKINA

Diru-laguntzarako aurkeztu den proiekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuek eskatutako edo jasotako diru-laguntza edo laguntzen ardurapeko adierazpena

Nik, jaunak/andreak,
NAN zenbakidunak (edo, hala izanez gero,(r)en izenean eta ordezkari gisa jardunez, IFK zenbakiduna) eta jakinarazpenen ondorioetarako egoitza helbidean dudanak, hauxe

ADIERAZI DUT

- ☐ Ez dut eskatu eta jaso entitate publiko edo pribatuaren diru-laguntza edo laguntzarik helburu bera egiteko.
- ☐ Jarraian alpatu diren organismo edota entitateen diru-laguntza edo laguntza eskatu edo jaso dut, helburu bera egiteko:

Entitatea	Saila	Zenbatekoa

Eta hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau egin dut.

.....(r)(e)n, (e)koaren(e)(a)n

Sin.:



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

IV. ERANSKINA

Diruz laguntzeko eskatu den jardueraren edo prolektuaren gastuen eta diru-sarreren aurrekontu orekatua:

Aurreikusitako gastuak	Urtea:	
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
Gastuak, guztira.....	0	€
Diru-sarrerak (aurrekusiako finantzaketa)		
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
		€
Diru-sarrerak, guztira.....	0	€
Eskatu den diru-laguntza.....		€



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

V ERANSKINA**BANKUKO KONTUAREN FITXA****DIRU-LAGUNTZA ESKATU DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK**

Erakundearen izena:			
IFK:			
Helbidea:			
Herria:		Posta kodea:	
Ordezkaria legala:			

.....n., 20eko.aren.(e)an.
(Erakundearen zigilua eta ordezkari legalaren sinadura)

BANKUKO DATUAK
(Bankuak betetzeko)

Bankuaren izena:	
Sukurtsalaren helbidea eta herria:	
Kontu korrentearen kodea (20 digitu):	

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Golan alpatutako kontua existitzen dela ziurtatzen dugu, eta titularra golan adierazitakoa da.

.....n., 20eko.aren.(e)an.
(Bankuaren zigilua eta bankuko arduradunaren sinadura)